

HKEE-REN PRENTSA-OHARRA, GETXOKO UDALAREN 2019KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen joan den apirilaren 29an Getxoko Udalaren, lau erakunde autonomoen (Kultur Etxea, Andrés Isasi Musika Eskola, Getxo Kirolak eta Udal Egoitza) eta Puerto Deportivo El Abra-Getxo SA sozietate publikoaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2019ko ekitaldikoa.

2019ko **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du; alabaina, salbuespen izan dira Udalaren Egoeraren Balantzeko Ibilgetu ez-finantzarioko saldoak, ez baitute inbentarioan jasotako ondasun eta eskubideen egiazko egoera erakusten.

Fiskalizatutako Kontu Orokorrak erakutsi duen **finantza egoerari** dagokionez, berriz, HKEEk azpimarratu du **murriztu egin dela udal zorra**, 2017ko ekitaldian kitatutako sarrera arrunten % 18,1 izatetik, 2019ko ekitaldian % 7,2 izatera aldatu delarik. Gastu Orokorretarako **Diruzaintza Geldikina 35,6 milioi euro** izan da eta hortik % 44,6 baliatu da 2020ko ekitaldian kredituak txertatzeko.

Bestalde, HKEEk azpimarratu du murriztu egin direla Udalkutxako sarrerak eta gehitu egin direla 2020an COVID-19 pandemiaren eraginaren ondorioz ezohiko laguntzek eragindako gastuak, udalerriko familiei zein jarduera ekonomikoei zuzenduak; baita, Getxo Kirolaki egindako transferentziak ere.

Udalaren Kontu-hartzaitzak jaulkitako txostenaren arabera, 2019ko ekitaldian bete egin da **2019ko aurrekontuaren likidazio bateratuan aurrekontuaren egonkortasun, gastuaren arau, eta zorraren muga.**

Udalak, bere erakunde autonomoek eta sozietate publikoak zuzentasunez **bete dute** 2019an beren jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duen **lege-araudia**, baina unean uneko zenbait akats azaleratu dira Administrazioako Kontratazioan (EBAOn argitaratu gabeko kontratu bat eta organo eskudunak (Udalak) onartu gabeko beste kontratu bat aldatzea; 3 kontratu mugaeguneratu ondoren gauzatzen jarraitzea (Udala eta Getxo Kirolak); eta kontratu txikietako bi prestazio zatikatzea (Udala eta Kultura Gela)) eta Aurrekontuetan (Aurrekontuen proiektua Osoko Bilkurari ez aurkeztea).